




HEMEN ZIZURKILDAR BAT

Doinuaren sortzailea: Xabier Lete.

Bertso honen egilea: Manuel Lujanbio "Txirrita" (1860 Ereñotzu, Gipuzkoa – 1936 Altza, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

Bertso hau Txirritak eskaini zion Pello Mari Otaño bertsolariari, bere heriotzean (1857 Zizurkil, Gipuzkoa – 1910 Rosario, Argentina).

Xabier Lete abeslariak "200 urtez bertsotan" CD bilduman Txirritari eskainitako antologian abestu zuen bertso hau, Letek berak sortutako doinuaz (Elkarlanean, 2001).

Hemen zizurkildar bat
genuen **gizona**
eskola haundikua
ta euskaldun **zuzena**
Ameriketara urte
askoan **izana**
Pedro Mari Otaño
zedukan **izena**
hamaika bertso polit
jarrita hil **zena**.

